

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1643

337/2016 EBAZPENA, apirilaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Iñigo Valdivielso Moneo jauna Uribe Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatu eta zerbitzu berezietan deklaratzeko dena.

Uribe Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori zuzendaritza nagusi honen martxoaren 1eko 130/2016 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2016ko martxoaren 1eko EHAA n argitaratu (41. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Iñigo Valdivielso Moneo jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Iñigo Valdivielso Moneo jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa, Uribe Erakunde Sanitario Integratuko fakultatibo espezialista Familiako Medikua lanpostu funtzionalaren 24124 zenbakiko plazaren titularra dena, Uribe Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko lanpostua betetzeko izendatu da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, zuzendaritza nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.— Iñigo Valdivielso Moneo jauna Uribe Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatzea.

Bigarrena.— Izendapen honek 2016ko apirilaren 4tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.— Iñigo Valdivielso Moneo jauna zerbitzu berezietan deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.